
- Jaurgoetan erregeak inmunitatea eman jauntxoei> erregearen legegileak ezin badira feudoan sartu ezin da erregearen legea ezarri. Hortaz, jauntxoa izango da legediaren ezarpenaren arduradun=jurisdikzioa du jaurgoan.**Inmunitatea**
- Erregeak ezin zizkien jaunei lurrak kendu (jaunen jabetza dira lurrak), baldin eta ez bazuten traiziorik aurrera eramaten. Laguntza militarra bereziki eta batzuetan ekonomikoa, zein aholkularitza feudoen truke. **Jaunaren jabetza**
- Izaera heredagarria ematen zaio feudoari **Familiaren jabetza**

Jarugoa: Jaunaren kontrola Jaunak kontrolatzen dituen lurrak dira.

- Ez dago zerga publikorik, berauen eskurapena basailutza zinetik dator, leialtasuanren trukeko ondasuna da lur eemu hori
- Jaunen jabetza hedatzen da nekazarien kontura, es decir, boterea hdeatzeko beharrezkoa zaie nekazarien menpekotasun egoera betikotze eta egokitzea
- Jaunaren boteraren bi ardatz: Botere militarra (gazteluak eta zaldunak kontrolatu) eta juridikoki dituen eskubideak (erabatekoak, bere gunean bizi direnak epaitu, zergapetu, isundu...) → Pribatizazioa eta inmunitatea. **Jaurgo jurisdikzionala** edo **ban jaurgoa** kontsolidatu, justiziaren pribatizazioa alegia. Gerora **azpi enfeudazioa** ematen da.

Jaurgoa: Disposizioa eta espazioaren antolaera. Aurrekaria *villak* dira, horietan ematen zen erreserba eta mantsoaren bereizketa berreskuratzen delarik. Landa esplotazio handiak. Egitura hori bere egin eta beharrezko aldaketak aplokatu erdi aro betean jaunek.

- **Mantsoak:** aldea (etxeak kokatu) + mantsoak (landutako lurrak, zerealak bereziki) + lur komunalak edo herri-lurrak (ekoizpena saretu, barazkiak bereziki)
- **Erreserba:** lur sailak (hemen lan egitea, korbeak, debalde egindako lana) + gaztelua (jaunaren bizilekua) + basoa (lehen publikoa zen, dena eraikitzeke erabiltzen zen egurra/ harria eliteak erabiltzen zuen, fruituak lortzeko beharreko > gero jaunek eskuratu basoak eta jada ezin ziren sartu: zigortu, tasak ordaindu...).
- Bien artean **errota** dago. Jaunek errotak eta labeak indarkeriaz eskuratu zituzten, ezin bazuten erosi eta ezin bazuten erretzen zituzten. Lehen publikoak ziren eta oso eraikin garrantzitsuak dira



***Jaurgoa: definizioa.** *Erdi aroan hitz horrek eliteetako pertsona batek edo pertsona multzo batek, bere menpeko gizakien lanaz probesteko baliabide guztiak aipatzen ditu biztanleriaren gaineko kontrol politiko eta soziala ezartzeko esparrua noble kopurua hazi, nekazariak egindako lanaren kontura. Jaurgoaren burua jauna deitzen zen, latinez, senior edo dominus hitzak erabiltzen ziren esangura hori adierazteko. Emakumezko andere*

feudalak ere bazeuden jaurgoa eta gaztelu asko ez ziren zuzenean kudeatzen, ordezkarien bitartez egiten zen.

- Jauna: nobleziako edo zalduneriako kidea izaten zen Elizako hainbat prelatuk ere –abadeek, apezpikuek- horrelako eskubideak eduki zitzaizkien Zenbaitetan, hiriek beraiek, beren inguruetako herriekin, jaunaren antzera jokatzeko zuten, menpekotasuna ezarri, jaun kolektiboak balira bezala.
- Jaurgoaen sorrera eta loraldia Erdi Aroan kokatzen bada ere, Europan Erregimen Zaharreko mendeetan zehar iraungo, Iraultza Frantsesaren garaira arte. Iraupen luzeko erakundea izan zen (XIXVIII. mendeak)

Jaurgoko zama arruntak Zama= jopu edo morroi bakoitzak dituen betebeharrak jaurgoa. Hamarrena konstantea. Zama askoren helburua sinbolikoa etekina baino

- Zamarik arruntena korbea litzateke. Korbea jaunaren erreserbetan, hots, mantsotik at, egiten den lanari deritzo, zeina ez duen zertan nekazaritza ekoizpena izan behar gazteluaren mantenua adibidez (gazteluraino jun) edo ta bideak zein gotorlekuak egokitzea.. Oro har jaunaren jabegoko lurretan egiten den dealdako lana. Asko edo gutxi egitea toka zitekeen eta gerta zitekeen nor bere uztan galerak eukitzea, egun klabeetan erreserbetako uztara bidaltzen bazuten
 - Aspektu ideologikoan, menpekotasunaren eta goiko figuraren aitortza eta asimilazioa
- Errenta feudala edo zentsuak. Etxebizitzagatik eta etxeari lotutako lurra ustiatzearen eskubideagatik ordaindu beharrekoa, erregularra bilakatuko da, urterokotasuna.
- Jaunaren monopolio ziren ondasunen erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa: Errota, labea

Beste era bateko zamak, tasak, menpekotasunaren berme sistematikoak

- Heredatzeko edo ezkontzeko tasak daude, baita jaunak eman beharreko permisoak => Ondorengotza kontrolatu
- Basoaren erabilera batzuk edo guztiak (ehiza, egur biltzea etab) kobratu (lur komunalen gutxinakako pribatizazioa) -
 - Lur komunalak. Lur libreak iraultza aurretik, gero a) guztiek erabiltzeko lurra mantentzea edo b) erreserban baneratu jaunaren pribatizazioaz gertatu ziren. Lur komunalak mantendu ziren lekutan, fenomeno bat eman > kontzientzia hartu ulermen politikoa garatuz eta jopuen artean kudeatu gauzak > honela asanbladak sortuko dira eta denborarekin kontseilu izango dira (lur komunalak kudeatzeko, jaunaren paralelo, publikoki) → tasak kobratu lur komunalak erabiltzeagatik baino hauek publikoak izango dira ez jaunarendako.
 - Bidesariak, muga tasak: Jaurgoen arteko mugak ezartzea garrantzitsua izango da, tasak zeinek eta non kobratzen ziren argi izateko. Jurisdikzio kontua da, noraino iristen den zeinen legea. Lurra kudeatzeko jai ziren muga hauek ekarriko dutena zera da, herrien arteko dibisioa. Izan ere feudalismoa fragmentazioa da, atomizazioa.
 - Aterpea emateko beharra
 - merkataritza lehentasunak: Soberakina izateko kasuan (gutxitan, beitu zenbat zama) (jauna engainatuz edo uzta itzela izan delako), hau saltzeko asmoa dago. Jaunak jaso duen uzta inflazio puntuan salduko du (produktua garestien jartzen den unean, uzta jaso berri delako eta eskari handia

dagoelako) eta jopuek soberakina soilik jaunaren ostean sal dezakete (prezioak jeitsi direnean)

- Opariak: Jaunari egiten zaizkio zama arintzeko baina soberakin adierazle direnez, zerga bilakatu.
- Parrokia patronatuak: Eliza pribatuak, jaunak etaiki eta berak kudeau hamarrena eskuratzea lortuz
- Pertsonen gaineko botera → Justizia eskumena, epai eta epaiketa arbitrarioak eta zalantzezina
- Ban jaurgoa edo jaurgo jurisdikzionalaren eskumenei helduta: Justizia, ejerzito pribatua eta txanponak jaulkitzeko eskubidea. Fiean, indar militarra + justizia (sistemaren 2 oinarriak= biolentzia eta justizia). Zigorrak desproporzionatuak dira => matxinadak, erresistentzia zapaltzeko. Zapalkuntza ez da kolektiboki ematen honen aurreko erantzuna kolektiboa ez izateko (adibidez krimen berdinatik zigor/isun ezberdinak). Zigorrak ia beti dira isunak eta hauek beti ordaintzen zaizkio jaunari (jaun eliztarra izan edo laikoa izan).

Matxinadak. Lehen antolakuntza armatuak, erresistentzia aktiboa. Antolakuntza txarra, fase esperimentalak. XIV. mendera arte ez ziren benetako mugimenduak egin. Ordura arte erresistentzia pasiboa zen eraginkorra (legedian loopholes eta jaunaren legea probestea haren kontra erabili). Azken aukera, ihes egitea (hirira). Izan ere, hirian urtebete eta egun batez mantenduta hirian onartuko dituzte. Hasiera batean ideia ona hirian edo beste jaurgotan ezkutatzea bertako jaunek jopuek lortzen zituztelako horrela. Baina berehala, jaunek klase kontzientzia garatu, eta batera ekin zuten morroi iheslariak zapaltzeko. Legeak hirietara jopuek sartu ez zitezen...

Nekazalgora

Nekazarien etxeak oro har. Txikiak ziren, 50 - 60 m² ingurukoak eta material iragankorrez eginak: Egurra, adarrak eta teilatua lastozkoa. Gela bakarrean zeuden jatorriz familia eta abereak, bien espazioa banatuz joan zelarik. Altzariak eskasak eta landugabekoak ziren eta askotan lurtean egiten zuten lo.

Mendebaldeko Europako nekazal etxe tipikoa

- Tamaina: txikia edo ertaina.
- Bi gune: sutondoa eta logela + korta. Eraikin gehigarriak beste funtzioak betetzeko: aletegia, ehundegia, sutegia
- Sutondoa: hormari erantsita edo etxearen erdialdean kokatuta, ez dira tximinien aztarnarik aurkitu.
- Egurrezko zutabez egindako hormak, adar eta lokatzez estaliak, batzuetan harrizko oinalde batekin.
- Lur zanpatuz egindako zorua. Kasu batzuetan harriztatua
- Teilatua: normalean lastoz egindakoa, teilarik gabekoa.

Nekazarien bizimodua

- Bizi itzaropena: umeen hilkortasun tasa altua (5 urte bete arte). Bizirauten zuten artean, %40ak 50 urte bete eta %20ak 70 urte.
 - 10-11 urterekin lanean hasi, aurretik soilik lagundu
 - Berinsfieldeko (Oxfordshire) hilerriko adibidea: Emakumeen erdia 30 urte bete aurretik hilda >> 26 gizonen artean, zortzi 30 urte bete aurretik hil ziren>> Biztanleriaren %10a soilik ailegatzen zen 45 urte izatera (ume asko ez ziren ehorzten helduen hilerrietan)

- Heriotzaz gain: Artikulazioen higadura, bizkar arazoak ... lanaren ondorioz sortutako gaitz fisikoak handiak. Inork ez zuen hortz bat galdu 30 urte bete aurretik (txantxarra arraroa) eta nekazalgaoren artean infekzio bat izatekotan ez zegoen sendatzerik
- Janaria: askotarikoa, batez ere zerealak, barazkiak eta esnekiak → okela ez oso maiz (abereak lan egiteko, urteko egun jakin batzuetan soilik) eta arrain gutxi (baimena behar) → edateko, esnea edo graduazio gutxiko alkohola.
- Janzkerak: Kotoiz, lihoz eta zetaz egindakoak (transpiratu eta hezetasuna xurgatu) → gutxitan garbitu eta urtaro guztietan berdin.

Demografiaren dinamika: Hazkunde jarraia eta metatua, motela eta eskualdekako ezberdintasunekin + epe laburreko etenaldi sakonekin (izurrite eta epidemiahandien *tregoa*. Horren ondorio zuzena da nekazal hazkundera. Zabalpen estentsiboa halabeharrez populazio igoerari erantzunez eta beraz garapen tekniko eskasa eta uzta txar ugariagoak. Produktzioa igo biztanleriak gora egin ahala eta kontrara, prozesu batek bestea ahalbidetu Berrikuntza eta aurrerapausu tekniko-teknologikoak egonen dira: Burdinezko tresneria, zaldiaren indarraren erabilera nekazaritzan, animalien indarraren trakzioa hobetzeko bestelako asmakizunak, lugorri sistemaren ezagutza gehiago eta beraz lurraren aprobetxamendu hobea...

Nekazaritzaren garapena

- Luberritzeak: hazkunderaren eragileak
- Hedapenaren mugak: teknologikoak, geografikoak, ekologikoak
- Hobekuntza teknikoak: Ez dira erabakigarriak, tresnerian eta ekipamenduetan zein metodoetan
- **Hazkundera nekazarien lanean oinarritzen da.**

0. Sarrera eta Geografia politikoa (Behe erdi aroko atalaren sarrera gixa)

Ohi Europaz aritzen gara Erdi Aroa aztertzen dugunean, Erdi Aro kontzeptua eurozentrismo da (zehazki europako mendebaldea). Izan ere, kontzeptu hau ezin zaio beste edonori aplikatu, kronologia ezberdina da e.a

- Goi Erdi Aroa > V.-X- mendeak. Adriapolis galdu erromatarrek+kristautasuna ofiziala inperio osoan 378. Erromatar inperioa zatitzea 410. Mendebaleko erromatar inperioa erori 476. Oso malgua haisera eta amaiera, antzinako berantiarra ere kontsidera daiteke.
- **Erdi Aro Betea** > XI-XIII. mendeak. (1000. urtetik-1300. urtera)
- Behe Erdi Aroa > XIV.-XV. mendeak. 1453 inprenta eta Konstantinopla. 1492 Amerika. 1517 erreforma protestantea.

Mendebaleko Europa irizpidetzeko, muga Alemania da.

Europa 1000. urtean (MAPA)> mapa honen garapena ikusiko dugu XV. mendera arte Herri germanikoen deszentralizazioa, estatu txiki gehiagoren agerpena oro har tendentzia. Estatu handi eta boteretsuen nagusigotik, feudalismoko zatikatzea- tokian tokiko politika nagusi. Estatuaren kontzeptzioa aldatu, biolentziaren monopolioa... XIV. mendetik aurrera.

-Erromatar Inperio Saindua (X.-XV. mendeak).Francia Orientalis X. mendean garrantzitsua (Germaniar mundua, Italia-Suitza-Herbehereak) Magiarrak= hungariarrak. XII-XIII. mendetan Inperio Sainduko zaldunek hedapena burutu zuten > Gurutzada Baltikoa emanen da (Prusia, e.a). Erromatar Inperio Sainduaren burua, **erregea zen eta hura ez da**

enperadore izango Aita Sainduak izendatu arte. Oso garrantzitsua izango da iruditegia= antzinako botere eta inperio handien oinordeko direla. Hemendik dator koroatzearen garrantzia. Erromatar Inperio Saindua oso **heterogeneoa** da, erresuma/dukerri... aunitz ditu, nahiz eta enperadore tituluaz homogeneotasun irudia eman nahi zen. **Loraldiaren momentuak oso gutxi** iraungo du. Baina momentu honetan Europako erresumarik boteretsuena izango da: ahultasunak inbestidurak+ Italia/Borgoinaren gaineko kontrola galdu+ Suitza+Herbehereak. **Printze hutesleak hautatu erregea**, gerora **Aita Sainduaren koroazioaz enperadore** bilakatuko dena.

Inperioa eta Aitasantutza: Inbestiduren auzia Apezpikua, parrokia sareen batuletatik emandako elizbarrutiaren buru zena, enperadorearen hautupean determinatzen den. Inbestidura eman zen determinatzko zeinen esku dagoen apezpikutzatza selekzionatzea (hots zeinek erabaki nork kobratuko duen hamarrena!). Botere lurtarraren (inperioaren) eta botere zerutiarraren (aita santua) arteko guda handia, bigarren honek irabazia eta beraz hura bera aberastuta. **Wormseko konkordatuan** hori adierazi.

- Bereziki italian emandako gerra, gibelino (Aita Santun aldekoak) eta guelfoak (enperadorearen aldekoak). Denbora luzez iraungo du talka eta beste une batzuetan azaleratuko da.

Italiaren garapena Italiaren zatiketa komunatan (tokian tokiko oligarkiek kontrolatuta) eta hemendik Behe Erdi Aroko Italiako hiri-estatuak sortu. Hiruzpalau hiri-estatu gailendu ziren eta konkistak burutu (Milan/Florentzia/Venezia) Inbestiduraren auzia zentzu politikoan: Erromatar Inperio Sainduak Italia iparraldea hartuta Erroma eta inguruak izan ezik (Aita Sainduaren kontrolpeko lurrak) > hauek hartzeko saiakera ere izan zen. Loralditik krisira: Federiko II.a (**interregno**> erregerik gabeko aldia. Honetan printze hutesleak sortu)

-Frantziaren garapena Lehen kapetoak → Hugo Kapeto. Matxinatu eta dinastia berria ezarri Frantziari, Kapetoak. 3 mendez kontrolatu frantzia (Hugorekin omen hasi feudalismoa). Erregearen irudiaren gaineko aldaketa batzuk gertatu: lehen duke bezela kontrolatzen zuen lurrak baino ez kontrolatu Hugok (Paris eta Orleans), hau kontrolatzeko sistema berri bat agertu (ez pertsona bakarrak asmatua) jaurreriak, basailutza sistema garatu + monarkia sakralizatu zuen (haien irudimenean Jainkoak aukeratu du erregea eta hortaz botere bereziak ditu: jendea sendatu ukituaz, zeinak gezurra diren baino euren boterea eta irudia sendotzen eta finkatzen du). Kapetoen loraldia 1180 - 1285

- **Felipe Augusto II (1180 - 1223)** nguruko lurraldeak konkistatzeko. Kataroen kontrako Gurutzadaz baliatzen da Languedoc eskualdea eskuratzeko, Tolosako kondea eta Aragoiko influentzia baztertuz. Inperioaren barne liskarretan parte hartu zuen, aitasantutzaren laguntzaz. Hirugarren Gurutzadan parte hartu zuen, Rikardo Lehoi Bihotzarekin batera. Bouvineseko batailan garaile (1214) Parisko Unibertsitatearen sorrera onetsi zuen
- **San Luis (1226 -1270)** Frantziako Luis IX.aren irudian Erdi Aroaren izpiritua ageri da: espiritualitatea eta gerra zaletasuna. San Luisek ez zuen lurralde hedapenik burutu. Bere aurrekoek egindakoen gainean, monarkiaren irudia hobetu zuen, ongizate publikoaren eta kanpo eta barne bakearen bermatzaile gisa aurkeztuz. Erregearen irudia bere gorengo mailara eramango du. Bere basailuen fideltasuna bermatu zuen, sistema feudalaren baliabideei etekin handiena ateratzen. Liskarretan arbitro gisa agertu zen, eta bere senideak ezarri zituen erreinu ezberdinetan, adibidez, Sizilian (Anjouko Karlos). Gurutzaden ideia bultzatzailea izan zen, Zortzigarren Gurutzada zuzendu zuen bere suhiarekin, Nafarroako Teobaldo II.a. Tunes konkistatzeko asmoetan zeudelarik biak hil ziren 1270an. 56 urterekin hil zen.

Kristautasunaren babesle bezala ikusten zen eta bere kanonizazioa azkarra izan zen: 1297an

Inglaterraren garapena, frantziari lotuta. Harold (aurreko erregearen aholkulari eta hortaz ondorengo) baino Frantziako Guillerrok (Normandiako Dukea) omen zituen eskubide gehio → bataila. Azken honek irabazi eta Ingalaterra konkistatu

- Enrike Plantagenet III eta Angevinar inperioa: Titulu asko eskuratu eta beraz lur askoren jabetza. XI mendean Akitaniako Leonorrekin ezkonduko zen. Hauek ordea banatu ziren eta Leonor inglaterrako erregearekin ezkondu zen eta dote moduan lurra eman zizikon. Angevinar inperioa lur multzo horri deritzo
- Juan Iurgabea → Magna karta sinatu eta inglterraren egoera juridikoa baldintzatu (gerra zibila galdu eta sinatzera behartuta). Kartan Eliza "libre" bat aipatzen da. Lege feudala, merkataritza eta merkataria, legearen erreforma eta justizia, errege ofizialen jokaera eta errege-basoak aipatzen dira ere. Magna Kartak komunitatearen eskubideak babesten zituen, Koroaren aurrean: kontratu feudal bat zen, erregea eta nobleziaren arteko erlazioak erregulatzen zituen. Horretaz gain, erreinuko beste estamentuen eskubide eta pribilegioak bermatzen zituen, nekazariak izan ezik.
- Rikardo I. lehoi bihotza: (Hirugarren Gurutzada > Ingalaterran denbora gutxi : Palestinara gurutzadan eta Frantzia setioa bertako erregeari....)

Ingalaterraren konkista eta 100 urteko gerraren arteko harremana. Estatu modernoaren sorrera, ejerzitu permanentearen sorrera. Tartean gizarte gatazka handiak (matxinadak, e.a). 100 urteko gerra nazioarteko gatazka bihurtu.

- 100 urteko gerraren osteko Frantzia: mapa.
- Arrosen Gerra (Lancaster eta York)> ezkontza bidez konpondu > tudortarren arrosa sortu, dinastia

Irlanda: Erresuma ugari daude eta ez da bat ere gailentzen > High King titulua paperean existitu baino ez praktikan >> Anglonormandiarrek konkistatu baino berriz ere lur eremu gutxi batzuk mantentzeko baino ez dira gai ?? galdetu.

Vikingoak: Europako biztanleroa bilakaera beherakorra izurrite beltzarekin, aurretik zetorren krisi ekonomikoan sakondu eta krisi sozial bilakatu. Matxinadak gatazkak eta altxamendu sozialak gertatu ziren. Gaixotasunaren hedapenaren mapa bat dago, badakigu gorpuak putzuetan sartzen zituztela eraso modun ura kutsatuz etab. Jendeak ikusita hedapen zabala, landak zaintzeari utzi eta goseteak ere hedatu. dena gainbeheran eta kalte handiak

Iberiar peninsula Birkonkistan terminoaren inguruko eztabaida. Birkonkistan konnotazioa da aurretik zurea zena edo zu zinena berreskuratzea, hartzea. Hasiera batean batez ere kataluniako konderria, nafarroa (hasieran iruñako erresuma) eta asturias (gero leon) eta gutxinaka garrantzia hartzen joango dena Gaztela, musulmanen eta nafarroaren kontura hedatzen da. Tartean XIIan Portugal sortzen da eta XIIIrako jada gaurko forma hartzen du portugalek. Gaztelarrek nafarroa hartu eta aragoiko koroak italiako zati bat. Gaztelatarrek kanarias eta granada konkistatu (XV)

Euskal herria. Bando gerrak bizkaian → Tokian tokiko leinuak borrokatu. Oñastiarrak eta ganbotarrak oro har. Dorre asko egiten zituzten /// Bando gerrak gipuzkoan → Oñastiarrak eta ganbotarrak oro har. Dorre asko egiten zituzten Nafarroan eta Araban baita Aberastasunak eta tokian tokiko guneak eskuratzeko borrokatzen ziren Leinuak, maiz borroka handiagoetan sartu eta magnitude handiagoa hartu.

ELITE FEUDALAK

Sarrera: Elite feudala laikoa (jaun feudala) edo eliztarra (elizgizona) izan daiteke. Berez biak izannen dira jaun feudal

Basailutza, omenaldia eta feudoa

Basailua pertsona libre bat da, elitekoa. Kide eta harremana arautzen duen erakundea da basailutza. Elite librearen kidee arteko harremana, zerbitzu eta fideltasun trukea. Kide hauek elizgizonak, nobleak eta zaldunak dira.

Estruktura soziopolitiko bertikala da⁴ eta erresumen limiteen baitan ematen da. Erresumako feudoak banatzen dira eta trukean eman dizunaren basailu izanen zara, ergo leialtasuna zor diozu. Honi enfeudazioa eta azpi-enfeudazioa (zuri emandakoaren zati bat ematea) deritzo. Elitea harreman horien bueltan antolatzen da, garrantzia ekonomikoa eta soziala da.


- Basailutzaren ideia kanpo harremanen planoan: Erresumen arteko harremana diplomaziaz egiten da eta askotan basailutza itunak inplikatzeko ditu, hau horrela, basailutzak barne eta kanpo politika ardatzen du.
- Lotura pertsonala da. Zuzenean zure gainean dagoenari zor diozu, bere erantzule zuzena zara.
- Jopu - jaun harremana ez da basailutzazko harremana, dominaziozkoa baizik !!

Nola bilakatu basailu? Omenaldia → Errito nagusia omenaldia da. Dorrean egiten da eta hainbat pausutan: **1) *Inmixtio manum*** jaun feudala exertzen da tronuan eta basailua bera aurrean belaunikatzen da. Eskuak otoitz egiteko moduan jartzen ditu eta jaunak horiek bere eskuekin estaltzen ditu. XIII mendetik basailutza itunak idatziko dira, itun hauen interpretazio askea sahiesteko. **2) *Osculum*** (muxua <3). Berrespen keinua, ez da beti egiten. **3) *Zina***: SAKratua izan behar du (erlikiak, gurutzea, ebangelioa bezalakoak presente daude) eskua gainean jartzen da eta leialtasuna zin egiten da

Lurra jaso: Inbestidura Basailu bilakatu berri den hori lurra edo feudoa jaso behar du, jaun feudal bilakatuko da. Jaunak makila ematen dio (boterearen sinboloa). Beraz inbestidurarekin feudoa jasotzen da

Feudo - leialtasun trukea da. Baina

Zer da feudoa? Oro har basailuari emandako saria da. Izaera arruntena jaurgoa da (baita onena era, handiena, aberatsena, lur baten gaineko kontrola), baina ez beti. Bestelako feudoak: Eskubide jakin batzuk (errota ta labea), mantso edo baserri bakar bat, poltsa feudoa (diru zakua) → XIIItik oso ohikoak, eraginkorrakoak direlako: Jaurgoa, hots, lurra, mugatua da eta momentu batetik aurrera gehiago zatikatzea ez da errentagarria. Urterokotasuneko ordainsaria hobesten da.



⁴ Erregea → Konde/duke ta holakok → balidoak (??) → Zaldunak. Gorakoaren basailu dira eta leialtasuna zor diote. *AUXILIUM ET CONSILIUM* Beheraka, feudoa ematen da.

Zer dakar leialtasuna ematea? Alde batetik jada aipatu dugu *auxilium et consilium* → Laguntza, oro har militarra eta aholkularitza.

- Sistema hau hedatzen eta orokortzen denean basailu batek jaun bate edo gehiagoren erantzule izatea gerta daiteke. Arazoak edo gatazkak baleude, zeinek in joan beharko zen basailu hau? Horretarako **jaun ligioa** sistema aurrera eramaten da. Zure jaun ligioa feudo hoberena eman dizun jaun feudala izanen da, itunean zehazten da.

Indarkeriaren pribatizazioa eta alor militarra: Aurretik aipatutakoaren bueltan, jaun bakoitzak ejerzito pribatua egituratzeko bitartekoak izango ditu puntu batetik aurrera, ergo, bere basailuek eta bere baliabide guztiak (humanos tb) osatuko dutena. *Auxilium* askotan inplikatzeko du: 40 egunez debalde borroka egiten da eta 41. egunetik aurrera basailuek kobratzen dute. Erregeak zaldun propioak eta bere basailu direnen zaldunekin egituratzen du ejerzitoa (ejerzito pribatu askoren batuketa). Gerra **elitizatzen** da.

Dominazio sistemaren ideologia → **Velator, orator eta laborator** ideia: Gerra egiten duena, otoita egiten duena eta lan egiten duena. Bere bizitza gerrari (edo otoitzari) dedikatzen diotenak, ergo, nobleak edo eliztarrak, arrazoi horregatik beragaik lanik ez dutela egingo zilegi bilakatzen da. ((BEITU TESTUA))


1066-1087

Jakin ezazue denok Peter, William erregearen zalduna dena, Edmund Deunaren [Bury Saint Edmunds-eko abade-etxea] eta Baldwin abadearen basailu bilakatuko dela, horretarako zeremonia burutu ostean. Erregearen onespina izango du horretarako [...] Peterrek, bere aldetik, erregeak eta abadeak horrela eskatuz gero, erreinu barruan eta bere kontura hiruzpalau zaldunekin errege-ostean jardungo duela bermatzen du [...]. Hauxe da feudoaren deskribapena: Edric Itsuaren lurra hamalau gizonekin; Wulfmaer elizgizona eta bere lurak hiru gizonekin; Thorkill, bere emaztea eta lurekin; Guthred eta bere lurra; Grimbald elizgizona; Leofstan; Gunnulf; Osfrith; Acwulf; Wlfgive; Leofgeat; Wlfricus; Tonhardus; Thurstan; Oslac; Thurstan "Cati"; Thurstan "Rumpe"; Godwine elizgizona; Glupus bere zazpi auzotar hauekin: Thurkeda, Brother, Brunstan, Wulmaer, Godgive, Deorum, Stubhart.

Gazteluak, aristokrazia eta boterearen bereganatzea

Gazteluak Hasieran gutxi ziren, publikoak (erregearenak) eta egurrezko harresiz babestuak. +/- 1000. urtetik biderkatu era mabarmenean (inglaterrako datuak adierazgarri) eta landa eremuetan baita hiriguneetan ugarritu. Askok eta asko **iraultza feudalaren** ostekoak.

- Eskumen publikoen pribatizazioa: justizia eta armada (batzuetan txanpona) Ofizial publikoek beren barrutien kontrola galdu zuten Aldaketa horren ondorioa: ban jaurgoa.
- Protagonistak: gazteluzainak edo alkaideak (sire-ak, bizkondeak) apezpikuak eta abade handiak: zenbait elizbarruti jaurgoko jurisdikzional bihurtu ziren lur-jabe handiak (beren lurretan jurisdikzioa eskuratu zutenak).
- Gazteluen ugalketa (Frantzia eta Katalunia, batez ere, XI. mendetik aurrera) Ingalaterran 1154an 274 gaztelu gutxienez Landa eremuan zein hirietan: Norwich-en 98 etxe suntsitu; Lincoln-en 106.
- Gazteluen funtzioa: militarra, soziala eta politikoa jaurgoko boterearen ikur eta jaunaren administrazioaren oinarria
- Gazteluen garapen arkitektonikoa: mota gazteluetatik harrizko gaztelu konplexuetara.
 - Ingalaterran zehazki konkistaren ostean eta badakigu nola egin zituzten. Etxeak suntsitzen zituzten askotan gaztelu hauei toki irekitzeko



Zaldun bihurtzeko bide anitzak eta elitismorako joera

- XI-XII. mendeetan >> Iraultza feudalean milites bezala jardun zutenak >> nekazari ohiak, gerra haien bizimodua egin dutenak >> hasieran ez ziren nobleak, baina noble bihurtuko dira >> erritoak, ideologia propioa, erlijioarekiko lotura eta bestelako mistizismoa sortu >> boterearen erakusgarri.
 - Nobleen eta zaldunen pribilegioak nahasteko joera >> Ekonomikoak: jaurgoko zamen askapena eta zergen aurreko abantailak >> Judizialak: parekoen epaiketa eta zenbait zigor ez ohoragarri ez aplikatzea.
- Aristokrazia eta goi nobleziako kideak (kondeak, printzeak, sire-ak/jaun feudalak) erakarri zituzten >> Gazteluzain boteretsuenak ere talde horretan sartzen ziren >> indarkeriaren gurtza, gizartearen militarizazioa.
 - Nobleziako familietan herentzia lerrotik at geratzen ziren semeak >> juvenis (gazteak) >> Gilermo mariskala adibide gisa.
- XIII. menderako gerlari nobleen korporazioa ezarrita zegoen >> Zaldunerian sartzeko bideak itxi ziren:
 - Jaiotza (familia nobleetan)
 - Errege pribilegioa
 - Baldintzok beteta ere, errito berezia, gero eta garestiagoa eta konplexuagoa ezinbestekoa

Zaldunaren bizitza

- A) Entrenamendua 7-10 urterekin hasi.
 - Paje bezala arituko ziren, gauza ugari ikasten: olerkiak egin, abestu, armak erabili, zaldiz ibiltzen
- B) 14 urterekin ezkutari bilakatu.
 - Beste ezkutari edo zaldunen aurka borrokatu entrenatzeko. Zaldiaren gainean borrokatzen ikasiko zuten, baita ehizatzen ere.
- C) 18-21 urterekin zaldun bihurtu.
 - Erregeak, bere jaun feudalak edo beste zaldun batek bihurtu dezake ezkutari bat zaldun.
 - Zalditeria astuna bezala joango dira gerrara.

Erdi aroko nobleziaren ezaugarriak

- Familia estrategiak: ezkontzak adostu, aliantzak antolatu...
- Ondorengo baten eskuetan herentziaren kontzentrazioa >> Behe Erdi Aroan maiorazkoaren sorrera.
- Herentzia-lerro nagusitik kanpoko seme-alaben egoera alda zitekeen >> Konponbideak: eliza, ezkontza estrategiak, zalduneria, gorteko mantenua >> Zenbait kasutan, arrakasta soziala posible zen: Gilermo mariskalaren.
- Elitismorako joera: odol-nobleziaren eraketa (XII. mendetik aurrera).
- Testuinguru horretan: genealogiaren eta heraldikaren garrantzia.
- Noble guztiak EZ ziren jaun feudalak.

Zaldunen kultura

- Sartzeko erritoak: inbestidura
- Kultura eta balore propioak: biolentziaren gurtza, adorea, arma-elkartasuna, leialtasuna eta fideltasuna, kortesia, erlijiotasuna, ospea eta loria >> klase kontzientzia.
- Jarduerak: ehiza eta torneoa (XII. mendeko hastilidum-a) entrenamendu fisiko eta mental gisa >> gerra >> hobekuntza soziala lortzeko aukera.
- Gorteko giroa: maitasun kortesa, zalduneria ordenak, festak ...

- Literatura eta zalduneria: idealizazioa >> olerki epikoak, erromantzeak, biografiak >> ziklo mitologikoak sortu zaldunen baloreak zabaltzeko >> XII. mendetik XV. mendera Arturo Erregearen kondaira sortu eta zabaldu.

Kategoriaren inguruko kezka: Heraldika

- Armarrak zaldunen zigiluetan eta, batez ere, beren ezkutuetan agertzen hasi ziren, objektu horien osagaiak apaintzeko.
- Lehen irudikapenetakoa 1136ko zigilu batean gordetzen da, Ingalaterran.
- Funtzio bat baino gehiago betetzen zituzten:
- Zaldunaren eta bere ezkutariaren edo laguntzailearen maila soziala adierazi.
- Azkar inposatu zen ohitura bat: nobleak eta zaldunak, aitaren antzeko ikurra erakustea, horrela familiaren edo leinuaren jarraipena agertzen zen.
- Ezkutari eta zaldunek beren jaunen ikurrak erakustea, leialtasun feudala aldarrikatzeko.

Eliza

Zergatik zen garrantzitsua Eliza ? → Egun, eliza eta estatuaren arteko bereizketa baina gaur ez bezala, Erdi Aroko irizpide orokorra: gizartearen eta elizaren arteko nahasketa

- Elizaren ikuspuntutik, bi kategoria: kleroa eta laikoak
- Elizgizonen esku-hartzea gizarte jarduera guztietan
- Aldi berean, laikoen esku-hartzea egun elizari soilik dagozkion kontuetan: elizgizonen antolamenduan, elizako kargu eta barneko administrazioan
- Elite mistoak: goi mailako nobleak eta prelatuak
- Eliteen artean, egoera horretatik sortutako elkarlana eta tentsioak

Elizaren garrantzia soziala:

- Elizaren jaurgoa
- Errenta unibertsala: hamarrenak
- Antolaketarako sare hierarkiakoa. Parrokia: tokiko gizartea antolatzeko esparrua
- Gizartearen irudia definitzen du: hiru ordenek (Laboratores, oratores, bellatores), elkarri egiten dizkiote zerbitzuak gizartea mantentzeko
- Denboraren neurketa: santuen festek eta ziklo liturgikoak urtearen erritmoa markatzen zuten
- Kultura idatziaren monopolioa: ia erabatekoa XIII. mendera arte; ordutik aurrera sekularizazio prozesua hasiko zen.

Emakumeen irudia eta Eliza:

- Liburu eta testu teorikoetan emakumea gizonaren menpekoa dela adierazi (Agustin deuna eta Tomas deuna) >> arima mugatuago bat
- Jatorria Eskritura santuetan >> dualtasuna, bi emakumeetan pertsonifikatuak >> Maria (bertuteak, kastitatea, sentikortasuna) eta Eva (ahulezia, arinkeria, koketeria, duintasun eza)
- Emakumea salbaziorako oztopo gisa aurkezten da, gizona limurtzeko, tentatzeko eta engainatzeko objektu gisa >> Askotan, deabruari lotutako elementu gisa aurkezten da.
- Emakumeen janzkerak eta sexualitatea kontrolatzeko ahaleginak.

Elizaren erakundearen garapena eta loraldia (XI. eta XIII. mendetan):

- Burutza. Aitasantutzaren antolaketaren hobetzea: erregeen kuria eta gortea imitaturik: kardinalen batzordea, Egoitza Santuko zerbitzuen espezializazioa (kantzelaritza, altxorra).

- Elizaren geografiaren jarraipen hobetua: probintziak, elizbarrutiak, artzapez barrutiak, parrokiak.
- Apezpikuaren kontrol sarriagoa eta zorrotzagoa (bisitak)
- Aitasantutzaren kontrol sarriagoa: ordezkariak edo legatuak
- Kontzilio orokorren bilkura: Letraneko IV.a (1215)
- Aitasantutzaren nagusitasunerako asmoa: "gregorianismoa" deitua: Gregorio VII.a, Urbano II.a eta Inozentzio III.a, batik bat.
- **Monakotzaren berritzea:**
 - KLUNY: 910ean sortua, XI-XII. mendeetan loraldia, sare hierarkiako >> oso aberatsa
 - ZISTER: XI. mendearen amaieratik sortua >> Bernardo Clairvaux-koa >> pobrezia.
 - ORDENA MILITARRAK: tenplarioak, ospitalarioak, teutonikoak.
 - Hasierako anakoreten eta ermitauen izpiritua berreskuratzeko:
 - CAMALDULAKO monjeak: 1023, San Romualdo
 - KARTUSIARRAK: 1084, San Bruno
 - ESKEKO ORDENAK: domingotarrak eta frantziskotarrak (fraideak) >> hiri munduko kondizioetara moldatuak-

Elizaren garrantzia politikoa (XI. eta XIII. mendetan):

- Erregeen, printzeen eta enperadoreen botere politikoaren indartzea: erritoak, teoria politikoa
- Basailutza - harremanak.
- Aulki Santuaren lehentasuna: erreforma gregoriarra
- Gregorio VII, Urbano II Inozentzio III Bonifazio VIII
 - Dictatus Papae: Kleroaren autonomia botere laikoaren aurrean inbestiduren gerra: abadiak, gotzaingoak. Wormseko konkordatu (1125).
- Aita Santuaren lehentasuna: Jainkoa besterik ez dago bere gainean.
- Buruzagitasun moralaren eta politikoaren eskubidea erregeak eta enperadoreak, laikoak diren heinean, Aita Santuarekiko mendekotasuna
- Gatazkak: Alemaniako enperadoreekin (XI-XIII)
- Erregeen, printzeen eta enperadoreen botere politikoaren indartzea: erritoak, teoria politikoa

Erromesaldiak: Bat-bateko fenomenoak, batzuetan gidatuta zeudenak >> gazte askorentzat mundua ezagutzeko modua >> hazkunde demografikoarekin lotura >> ondorio ekonomikoak >> hirien sorrera eta garapena (Donejakue bidea). Hilobiak:

- Compostelako Donejakue: Donejakuaren hilobiaren "aurkikuntza" 800. urte inguruan >> monje asturiar batzuek sortutako kondaira, penintsulako Islamaren aurkako gerren testuinguruan >> Donejakue bidea XII. mendetik aurrera
- Erroma: Pedro eta Pablo apostoluen hilobiak >> IX-XI. mendeen artean eta XIV. mendetik aurrera.
- Jerusalem: Hilobi santua, Hiri santua >> XI. mendetik aurrera erromesaldi armatuak baita ere >> Gurutzadak.

Erlikiak: Gurutze Santuaren ezpalak, Kristoren Odola, Jesukristoren koroaren arantzak... >> baita santuen erlikiak ere. **Erromesek** arima eta gorputzaren sendatzea bilatzen zuten >> garbiketa erritoak, gaixotasunak eta bekatuak garbitzeko

Eliza eta zalduneria: erdizka geratu zen etxekotze prozesua.

- Elizaren egitasmu soziala talde berri baten aurrean: mugak, zerbitzuak, aliantzak, erakundeak, doktrina

- Mugak. Jaungoikoaren Bakea: hainbat pertsona, leku eta eraikin, ukiezinak.
- Mugak. Jaungoikoaren Tregoa edo gerraren etenaldia: igandeetan eta beste jaiegunetan
- Zerbitzuak. Elizak ere zaldunak basailutzan hartzen ditu bere zerbitzura. Baita mertzenarioak ere.
- Aliatuak. Elizak printze babesleen sarea antolatzen du (Aragoa, Sizilia, Besalú...): fideles Sancti Petri izenekoak, bere aliatuak izan daitezten.
- Erakundeak. Ordena militarrek, Gurutzaden giroan.
- Doktrina. Zaldunentzako etikaren definizio teorikoa.

Gurutzadak

Zer dira gurutzadak? Espedizio eta kanpaina “klasikoak” (1095-1291)

- Aurrekariak: Iberiar Penintsulan (Barbastro, Tuter, Tarragona) eta Europar kolonialismoaren aurrekaria
- “Jihad” islamikoaren aldaera kristaua?
- Zuzenbide kanonikoaren ikuspuntutik, erromesaldi armatuak (iter, peregrinatio-a) >> “Erromes ” horiek arropetan gurutze bat marraztu, margotu edo josten zuten >> Horrela jaio zen “gurutzatu” izena (cruce signatus-a) >> Penintentsia egiteko era.
- Aitasantutzaren baliabidea bere nagusitasuna ezartzeko >> Elizaren kontrol ideologikoa (Gregorio VII.a, Urbano II.a)
- Errege eta subirano laikoen estrategia zalduneria eta nobleziaren indarra kontrolatzeko
- Mendebaldeko Europaren indar eta bizitasunaren adierazpena
- Ordena feudalaren garapenaren ondorioa. Legitimazioa.
- Hitzaren erabilera beste kasu batzuetan: Iberiar Penintsulako kanpainak (Zaragoza, Tuter, Navas de Tolosa), bizantziarrak, kataroak, eslaviarrak
- Hitzaren erabilera propaganda egiteko, Behe Erdi Arotik aurrera: otomandarrak (Nikopolis 1397an, Lepanto, 1571). Aro Garaikidean: Espainiar Gerra Zibila.

8 Nagusiak

- Lehen Gurutzada (1096-1100)
 - 1095/11/27: Urbano II.a Aita Santuak Lehen Gurutzada aldarrikatzen du.
 - 1097/6/19: Nicea erortzen da.
 - 1097/7/1: Dorileako bataila
 - 1098/6/3: Antiokia konkistatzen dute.
 - 1098/6/28: Antiokiako bataila 1099/6/7: Jerusalem hiriaren setioa hasten da.
 - 1099/7/15: Jerusalem hiri santuaren erorketa.
 - 1099/8/12: Axkeloneko bataila, Lehen Gurutzadaren azken ekintza
- Bigarren Gurutzada (1147-1149)
- Hirugarren Gurutzada (1189-1192)
- Laugarren Gurutzada (1202-1203)
- Bosgarren Gurutzada (1217-1221)
- Seigarren Gurutzada (1228-1229)
- Zazpigarren Gurutzada (1248-1254)
- Zortzigarren Gurutzada (1270)

Ekialde Hurbileko estatu latindarrak

Lau estatu berrien sorrera:

- Jerusalemgo Erresuma: 1099 –(1187)- 1291
- Edesako Konderria: 1098 - 1144
- Antiokiako Printzerria: 1098 - 1268
- Tripoliko Konderria: 1104 - 1288

Ezaugarriak: Ahulezia geografikoa (kostaldeko lur zerrenda) eta heterogenotasun etnikoa. Komunitate bateraturik ez.

- Mendebaldeko etorkinak –frankoak-. Erromesak eta kolonoak (Frantzia, Ipar Italia, Iberiar Penintsula nabarmenki) gizarte talde guztietakoak.
- Aurreko komunitateak. Grekoak, siriarrak, musulmanak, juduak. Elkarbizitza eta integrazio maila mugatua eta lekuz leku aldakorra legearen eta kulturaren aldetik (ia ezer ez musulmanekin). Irregularitasuna.

Estatu feudalak. Mendebaldeko erakundeak imitatuz: basailuen sarea, feudoetan oinarriturik, errege kuria epaimahai gisa basailuen arteko auziak ebazteko, legeko kode berezia –Assises delakoa-.

Eliza katolikoaren erakundeen sarea: bi patriarka hiri – Antioxia eta Jerusalem-. Siriarrakiko gatazkak.

Ordena militarrik: etsaitasun giroan bizirauteko teknika. Bi kontzeptu sartzen dira horrelako erakundeen eraketan: zalduneria laikoarena, alde batetik, eta bestalde, militia Christi-arena. Famatuena Ekialde Hurbilean eta Europan

- Tenplarioak (c. 1118)
- Ospitalarioak / Jerusalemeko San Joan (c. 1104)
- Zaldun teutondarrak (c. 1190) >> Drang nach Osten.

Ordena militarren sorrera taula, 123. diapositina, Elite feudalak

A) Tenplarioak:

- Jerusalemeko joaten ziren erromesak babesteko sortutako zaldun laikoen kofradia erlijiosoa, 1120 urtean inguru.
- Denboran zehar, monakotza ordena bihurtuko ziren (1129an, Troyes-eko kontzilioan) >> berezitasun batekin: ordenako monjeetako askok, zaldun laikoek bezala, armak erabili ahal zituztela (gerlariak eta monjeak aldi berean) >> Zirkunstantzia horrek eztabaida sortuko zuen.
- Propagandista nagusia >> Bernardo Clairvauxkoa, 1130ean inguru, ordena berriaren fundazioa justifikatu zuena Milizia berriaren Laudorioa >> tratatua tenplarioak fedegabeko gaiztoen etsaiak dira; bertutea praktikatzeko dute; gerran bizia galduz gero, martirioa lortzeko dute; fedegabeak hilez, gaiztoen suntsitzaileak dira
- Antolamendu instituzionala eta ekonomikoa >> probintziak, enkomienda sarea >> Finantza teknikak aurreratuak (maileguak, ordainketa aginduak, etab.).
- 1307-1314 urteetan ordenaren amaiera izan zen >> Frantziako Felipe IV.aren ekimenez >> arrazoiak: ekonomikoak, nagusitasun politikoa.

B) Ospitalarioak:

- Hasieran, karitate eta medikuntza lana egiten zuen monakotza erakundea >> 1050-1070 urteetan inguru Jerusalemeko sortutakoa >> Hilobi Santuaren aldamenean.

- Tenplarioen ereduari jarraiki eta haiekiko lehian >> XII. mendearen erdialdean Ospitaleko monjeak militarizatu ziren, aurreko jarduerak abandonatu gabe >> sare ekonomikoa garatu zuten Europan (tenplarioekin batera)
- Tenplarioek baino iraupen luzeagoa izango zuten >> Estatu latindarrak desagertutakoan, Rodas uhartera igaro ziren >> XVI. mendean Maltan finkatuko zen ordenaren egoitza >> Egun existitzen da.